

Aretxagazeta

ARETXABALETA / Egubakoitza / 2005eko irailaren 23a / Gehigarri berezia



SAN MIGELAK 05

ARGAZKIA: ARETXAGAZETA

Opel Zafira berria
Leku ezin hobea.



Ondo pasau San Migelak!

GARAJE NORTE S.L.



Basabe bidea A 1-3 ARETXABALETA
Tel.: 943 71 20 03 Faxa: 943 77 16 20



Azkarate eta Ardatza: arotz lanetan behar duzun guztia



Zoru aukera zabala
Tarimak
Parket flotatzaileak, bernizatuak
eta estratifikatuak



Ateak • Leihoak • Horma-armairuak • Tarimak • Parketak • Sukaldeak

Neurrira ebakitako tableroak • Apalak • Kajoiak • Zokaloak
Moldurak, sarrailak • Manilak • Egurrezko objetuen pintaketa



**AZKARATE
AROSZTEGIA**


Telleria 19, B-0-2 B-0-3
BERGARA
Tel.: 943 76 47 19
610 884 020



ARDATZA

Brikolaketa

Masterreka 4, behea.
Tel.: 943 76 18 93
BERGARA



*Aretxabaleta
okindegia*

*Ondo ibili
San Migeletan!*

Basabe 2. Tel.: 943 77 00 81
Loramendi 6. Tel.: 943 77 17 19

EGITARRAUA

JAIETAKO EGITARRAUA

Egubakoitza, 23

19:00 Buruhandiak herriko txistulariekin.

19:30 Hortzmuga taldearekin kale animazioa *Zirko Iluna* antzezlanarekin.

22:00 Pilota partiduak, Iturrigorri frontoian: Lasagabaster-Alzola/Uriarte-Oion. Errebantxa: Errasti anaiak /Errarte-lñurrategi

Zapatua, 24

10:00 Artisau feria eta XI. azoka ekologikoa. Loramendi Eeko txosnan taloak eta sagardoa.

10:30 Diana herriko txistulariekin.

11:30 Leizarra musika eskolako trikitilariak.

12:30 Txalaparta Durana kalean.

13:00 Salda Durana kalean.

13:00 Jesus Mari Irazu, Ainhoa Agirreazaldegia eta Iker Agirre bertsolariak Durana kalean.

13:30 Kuxxuntu txarangarekin kalejira.

14:30 Herri bazkaria Euskal Presoak Euskal Herrira topaguneak antolatuta.

16:00 Asto karrera Kurtzebarri eskolako kantxan. Ondoren, karaokea.

18:00 Kuxxuntu txarangarekin kalejira.

19:00 Larrin dantza Durana kalean.

19:30 Hala Gera gaitariekin kalejira.

22:30 Ibon Koteronen musika taldearen kontzertua, Herriko plazan.

Domeka, 25

10:30 Gazteentzako Udazkeneko txirridulari criteriumaren hasiera Araba



HARRI-JASOTZAILE ETA AIZKOLARIEK IKUSKIZUN BIKAINA ESKAINIKO DUTE

ibilbidean. Bukaera 12:30ean, hasitako lekuan.

11:30 Beteranoen futbol partidua Ibarra futbol zelaian. Aurretik UDAko kide batzuk omenduko dituzte:

Real Sociedad-UDA

13:00 Herri kirolak.

Harri-jasotzaileak: *Goenatxo* eta Miren Urkiola.

Aizkolaria: *Bihurri* eta *Arbizu*

Iparraldeko jokoak: Ana Berasategi eta Iñigo Saez

16:00- 19:00 Umeentzako parkea Herriko Plazan.

16:30 XIII. San Migel Mus Txapelketa. Izenematea: 18 euro.

19:00 Aretxabaleta Abesbatzaren emanaldia Iturrigorri frontoian. *Katiuska* zartzuela. Zuzendaria: Angel Barandiaran.

Ondo pasa
San Migelak!!

EGUZKIGRAF

inprimategia

Aretxabaletako Industrialdea F-0-4

Araba ibilbidea

20550 Aretxabaleta

Tfnoa: 943 791 844 - Faxe: 943 792 941

E-mail: info@eguzkigraf.com

ANTZERKIA

HORTZMUGA TALDEAK ZIRKU ZAHAR BATEN ISTORIOA KONTATUKO DU 'ZIRKO ILUNA' IKUSKIZUNEAN.

Zirku zaharrari agur esateko ikuskizuna

Txotxongilo erraldoiak, zirku saio txikiak eta ikusleen partaidetza elkartuko dituzte ikuskizunean

MIRARI ALTUBE

Gaur, egubakoitza, 19:30ean, *Zirku Iluna* antzezlana eskainiko du Hortzmuga antzerki taldeak. Gainbeheran dagoen zirku zaharraren istorioak hunkitu egingo ditu Aretxabaletako neska-mutikoak.

Jumbo —arriskua—ren maitalea—, Kerkus —dama misteriosa—, Mirinda —orekaria— eta Fredo —fartsaren profesionala— bakarrik geratu dira zirku zaharrean. Denek alde egin dute, baina laukoteak ezin dio agur esan garai baten karpa gorri dotorea izan zuen zirkuari. Horrenbeste urte, horrenbeste bidaia, horrenbeste tx-



HORTZMUGA

Herriko plazan jarriko dute zirkuko karpa, eta piztiak, akrobatikak, malabaristak eta beste hainbat pertsonaia agertuko dira.

loren ostean, zela aĥaztu gutia. Horregatik, piztiak, orekariak, malabaristak... Guztiak itzuliko dira azken emaldia egiteko.

Orain dela hilabete batzuk Leioako azokan aur-

keztu zuen Hortzmuga taldeak. Zirkuko pertsonaien esperientzia oinarri hartuta ordubeteko istorio hunkigarria kontatzen du. Tristeza, oroimenez betea, baina dibertigarria era berean.


Zirkuko pertsonaietan oinarritutako istorioa Leioako azokan aurkeztu zuten orain dela hilabete batzuk

Gozatu San Migelak!

TABERNA-BERRI

J A T E T X E A

Durana 26 ARETXABALETAKO
Tel.: 943 79 20 67



JAUSSORO OSTATUA



Ondo ibili
San Migeletan!

Durana kalea 18 1.ESK
ARETXABALETA

Tel.: 943 79 89 69
Sakelakoa: 656 74 81 61

Aurpegiko garbitasunak

- Orbanak
- Zimurrak
- Hidratzioa



Gorputzeko tratamenduak

- Erditze ostekoak
- Berrindartzaileak
- Erreduktoreak
- Antizelulitikoak



Zerbitzu guztiak zu edertzeko

Laser depilazioa

- Axilak
- Iztaiak
- Aurpegia (Bibotea, patillak)
- Sorbalda



Makillaje ikastaroa

- Pertsonalak
- eta individualak



Gemes
estetika

Ondo pasa jaixetan!

Ilargi plaza 2 / Tel.: 943 79 99 18
ARETXABALETA

AZOKA NEKAZARITZA EKOLOGIKOAREN XI. AZOKA EGINGO DUTE DURANA KALEAN

Produktu ekologiko onenak, denon eskura

Euskal Autonomia Erkidegoan egiten den zaharrenetakoa da, Tolosa eta Zerainekoarekin batera

M.A.

Nekazariak produktu ekologikoak eta artisauak genero onenak eskainiko dizkigute zapatu goizean, irailak 24, Durana kalean.

HAMAIA URTEKO AZOKA

Dagoeneko 11 urte beteko ditu azokak eta urtetik urtera garrantzi handiagoa har-

tzen joan da. Batetik, inguruko baserritarrak hurre-ratuko dira udazkeneko barazki eta fruituak eskaintzera, eta bestetik, urtero etortzen diren artisauak elkartuko dira. Horiekin batera ikastetxeetako gazteek hainbat produktu saldu gura izango dituzte, baita kilometroak taldekoek ere. Diru-zorroa ondo bete-ta ekarri behar.




Osasunerako elikagai garbi eta onuragarriak

Azoka egongo da bihar Durana kalean. Baina ohiko azoka ez, nekazaritza ekologikoaren azoka baizik. Eta zer da produktu ekologikoa? Lurraren eta norberaren osasunerako elikagai garbi eta onuragarria. Zela lortzen da hori? Lurraren emankortasuna eta ekosistemaren oreka zainduta, abereen bizi baldintza duinak ziurtatuta, hondakin toxikorik sortu barik eta ongarri eta botika artifizialik erabili barik. Eusko Jaurlaritzak kontrolatzen eta zertifikatzen ditu produktuak eta hori ziurtatzen duten zigilua jarrita daukate guztiek.



Artisauak lanean ikusi eta produktuak erosteko aukera

Gero eta artisau gutxiago ditugu Euskal Herrian. Bai behintzat nork bere aldetik lan egiten dutenak. Hala ere, ez dute hutsik egingo urtero etortzen direnek: ogi eta pastel saltzailea, zapataria, saskiak egiten dituenak, zilarrarekin lan egiten duena... Horiez gain, Eibarko Suoker taldeak garai bateko erremente-riek zela egiten zuten lan erakutsiko dute. Euskal Herriko forjarien tradizioa jaso dute Manu eta Jonek, eta hauspoari eraginez kalean bertan egiten dituzte forja lanak. Elgetako espaloian 30 lan daukate erakusgai irailaren 30a bitartean.



GUREA

Gora San Migelak!

TABERNA

Durana 32 Aretxabaleta Tel.: 943 79 20 64


KITIBOS



ZAPATA DEMDA

SAN MIGEL
ZORIONTSUAK IGARO!

Murubide 2 behea / Telf.: 943 53 37 33 / ARETXABALETA



Zenbaki

AHOLKULARITZA

- Kontabilitatea
- Fiskalitatea

- Lana
- Juridikoa

*Ondo pasau
San Migeletan!*

Basabe poligonoa, F-0-10 (1. solairua)
ARETXABALETA
Tel.: 943 71 21 12 - Faxa: 943 71 22 68
posta elektronikoa: zenbaki@zenbaki.es
webgunea: www.zenbaki.es

MUSIKA

EGUNA LAPURDIKO KUXKUXTU TXARANGAK GIROTUKO DU, ETA GAUA IBON KOTERON ETA TALDEKIDEEK

Euskal Herriko musika egun nagusirako

Iparraldetik datorren txaranga eta Bizkaiko alboka doinuak elkartuko dira zapatua girotzeko

M.A.

Euskal jaiak eta euskal azokak euskal musika behar dute, eta halaxe izango dugu zapatuan, San Migel jaietako egun nagusian.

TXARANGA ETA ALBOKA

Beste era bateko txaranga doinuak ekarriko dizkigu Kuxkutu taldeak. Gainera,

euskal kantak gustuko dituenari abesteko aukera emango dio txarangak.

Ibon Koteronek, bestalde, doinu ezagunak eskainiko dizkigu; izan ere, urtero hurreratzen dira gaitariak San Migel jaietan. Gaueko kontzertua, ostera, ezberdina izango da, erritmo biziek eta doinu leunek bat egingo dute ahots goxoaren inguruan.



Kanta herrikoiak txarangak jarritako doinuekin

Lapurdiko hegoaldetik dator Kuxkutu txaranga. Zazpi eta hamabi lagun artean ibiltzen dira eta ezohiko txaranga da. Txirula, akordeoia, panderoa, flauta, perkusioa eta gitarra doinuak ekarriko dituzte gure kaleetara. Kanta herrikoiak abestuko dizkigute, abestu eta abestera gonbidatu. Horretarako liburuxkak banatuko dituzte, inor ez dadin gelditu isilik.

Makurtu esan gura duen txaranga taldeak 20 urte baino gehiago ditu, eta han eta hemen ibili da: Nevada, Korsika, Bavaria... Giro bikaina sortu dute beti; halaxe egingo dute gurean ere.



Ibon Koteronek alboka doinuek herriko plaza girotuko dute

Ibon Koteronek alboka-jole bilbotarrak eta beste lau taldekideek gaupasa bikaina eskainiko digute zapatuan. Perkusioa, organoa, txalaparta, txeloa eta alboka elkartuko dituzte erritmo biziak eta melodia dotoreak osatzeko, eta ahots leunaren eraginez goxotasuna izango da nagusi kontzertuan.

Bilboko Gaitariak taldeko kidea da Ibon eta taldekideekin batera sarri etorri izan da San Migel jaietara alboka eta dultzaina soinuekin kaleak girotzera. Larrin dantzan musika jotzeko ardura ere gaitariak izan dute beti.

- Erakusketak
- Antzerki, zine eta musika-zikloak
- Liburuen argitalpena
- Kanpaina desberdinen eragiketa
- Erakusketa eta ikus-entzunezko materialen alokairua

KULTURGAIK

HURBIL

KULTURA ZERBITZUAK

HURBIL KULTURGAIK, S.L.

Arkarazo auzoa • Bikarixuena baserria • p.k. 160

20550 ARETXABAETA

tel.: 943.71.42.08 • faxa: 943.71.47.08

e-posta: hurbil@hurbilkulturgaiak.com



*Aretxabaletako Udalak San Migel jai
zoriontsuak opa dizkizue aretxabaletar guztioi*

ELKARRIZKETA UNAI ETA IBON ERRASTI PILOTARIAK

“Partiduarekin gozatzen saiatuko gara jokaldi politik eginez”

M.A.

Gaur, egubakoitza, pilota partiduak jokatuko dituzte herriko pilotariak. Lasagabaster eta Altzola, Uriarte eta Oionen aurka; eta Errasti anaiak, Eskoriatzako Errarte eta Iñurategiren aurka. Debarroko txapelketako errebantxa hartu nahiko dute azken horiek.

Aspaldi herrian jokatu barik...

Bai, halaxe da. Garai baten Andramaixetan jokatzen genuen eta inoiz San Migeletan ere bai, baina orain profesionalak ekartzén dituzte... Aretxabaletan bertan pilotariak egonda horien aldeko apustua egin beharko lukete.

Eta herrian delako, erantzukizun handiagoa?

Guk urteak ditugu eta partidu asko atzean, hortaz,


lasai aterako gara. Herri-tarrek badakite zela jokatzen dugun, ezagutzen gaituzte eta ez dugu inolako beldurrik. Adin ona daukagu pilotan jokatzeke eta gustura gabiltza. Kritika batzuk izango ditugu, zela ez, baina guztiei erakutsiko diegu zein ondo gauden.

Eskoriatzarrak errebantxa gogoarekin etorriko dira Debarroko finala galdu ostean.

Bai, baina ez da aurten finala bakarrik. 1992an ere Iñurategirekin jokatu genuen Debarroko finala hemen, Aretxabaletan, eta orduan guk galdu genuen, 21-22 uste dut. Hortaz, aspalditik dator gure arteko norgehiagoka. Giro polita sortuko da partiduaren inguruan, eta hori da garrantzitsuena.

Eta emaitza?

Ondo ibiliz gero geuk irabazi beharko genuke, eskoriatzarrak biak dira eta atzelariak. Baina azken



hilabeteotan gutxi entrenatu gara, eta ikusi egin behar. Hala ere, argi dau-

kagu ez daukagula ezer demostratu beharrik, eta irabazi edo galdu jokaldi

“Herriko pilotarien aldeko apustua egin behar da”

“Ez daukagu ezer demostratu beharrik”

“Seigarren txapela herrian lortzea polita litzateke”

politik egin eta partiduarekin gozatzen saiatuko gara.

Datorren urtean Debarroko Txapelketa Aretxabaleteri tokatzen zaio antolatzea. Berezia izango da, ez?

Bai, herrian jokatzeak asko motibatzen gaitu eta seigarren txapela herrian lortzea benetan polita izango litzateke.

Urte asko daramatzazue jokatzen...

Bai, asko. Gazteagoak ginenean tanto bakoitza barru-barrutik bizi genuen. Orain ez daukagu lehengo ilusiorik, baina esperientzian eta lasaitasunean irabazi dugu. Joko polita egiten saiatzen gara.

Zela ikusten dituzue atzetik datozen herriko pilotari gazteak?

Ganora gutxi ikusten dugu euren inguruan. Pilotak sakrifizioa eskatzen du, sakrifizio handia, eta ume eta gaztetxoan gainean egon behar da hori erakusteko. Oporretan ere ezin dira ahaztu entrenamendu saioak. Dagoeneko, bi edo hiru urte daramatzagu herri arteko txapelketan jokatu barik, eta horrek zerbait esan gura du.

San Migel jatetxea

San Migel jai zoriontsuak opa dizkizuegu

- Astelehenetik ostiralera eguneko menua
- Asteburuetan karta

Apotzaga auzoa ESKORIATZA 943 71 48 71



**San Migel jaien altzoan
anaiarteko giroan
ipini gona, blusa, ikurrina
euskara ahoan
bake ametsak golkoan
falta direnak gogoan
parrandarako umore ona
ez ahaztu auzoan!**

 **aretxabaletako
Aralar**




Fino

**Gizonezkoen
ile apaindegia**

*Ondo pasau
herriko jaixetan!*

Durana 19 • Aretxabaleta
Tel.: 666 264 886



FUTBOLA

11:30EAN HASIKO DA PARTIDUA ETA ATSEDENALDIAN, TXIRRINDULARI LASTERKETAREN BUKAERA

UDAKo eta Realeko jokalarik beteranoak aurrez aurre Ibarrran

Partidua hasi aurretik Bixente Etxeandia, Rafa Etxeandia, Jabier Etxeberria *Fito* eta Iñaki Antxia omenduko dituzte

M.A.

Batzuk nagusiagoak eta beste batzuk gazteagoak, 21 jokalarik elkartu dira Goio Arrieta eta Patxi Agirrezabalagaren zuzendaritzapean betereanoen partidua jokatzeko.

Lau entrenamendu saio baino ez dituzte egin, baina Realari aurre egiteko gertu dago 21 jokalarik osatutako taldea.

Noizbait UDAn jokatu-takoa izatea zen baldintza, eta horixe kontuan hartuta 21 jokalarik elkartu dituzte Goio Arrieta eta Patxi Agirrezabalaga entrenatzaileek. Batzuk oraindik preferentean dabilta jokatzeko, Kepa Azkue eta Igor Are-

natza esaterako, eta beste batzuk aspaldi utzi zioten.

Realetik, bestalde, Iñaki Alava, Uria, Orbegozo, Manu Urbietta eta beste hainbat etorriko dira. Realeko jokalarik izandako Santi Idigorasek, oster, UDArekin jokatu du.

OMENALDIA

Partidua hasi aurretik, baina, omenaldia egingo diete UDAKo zuzendaritzan 10 urtetik gora egin dituzten lau kideri. Bixente Etxeandiak urte eta bitxizko intsignia jasoko du azken 10 urteotan lehendakaria izan delako. UDAREN historian ematen den bigarrena izango da; lehena Juan Luis Izagirre sortzaileak jaso zuen. Rafa Etxeandiak, Jabier Etxeberria *Fito* eta Iñaki Antxiak urrezko intsigniak jasoko dituzte.



Jokalarik bat izan ezik beste guztiak elkartu dira entrenamendu saioetan; Santi Idigoras Donostian entrenatu da, gero UDArekin jokatzeko.

DAGDA



Belorrieta 3, behea ARETXABAETA Tel.: 943 71 25 96

*Egunero irekita goizeko 8etatik gaueko 12ak arte
Larunbat eta igandeetan 10etatik goizaldeko 1,30ak arte*

*Gosariak
Era askotako pintxoak
Inportazioko garagardoak
Kafeak
Kopak
Giro ona
Udako terraza*

Konpainia ezin hobean garagardo on bat gozatzera etor zaitez!

San Migeletan egiguzu bisita!





**BARRUKO ETA KANPOKO LORATEGIAK ZAINDU ETA SORTZEN DITUGU
UREZTATZE-SISTEMA AUTOMATIKOAK INSTALATZEN DITUGU**

Basabe poligonoa D-2-1. T/F: 943 79 78 45 / 616 96 57 98. 117 posta kutxa ARETXABALETA

Ondo ibili San Migeletan!

Karlos



Harategia

Santa Kurtz 5
Tel.: 943 71 25 54
ARETXABALETA

Jon Díaz



Harakina

Loramendi 1
Tel.: 943 79 71 69
ARETXABALETA

Karlos eta Jonek San Migel zoriontsuak opa dizkizute!

ZARZUELA

JAIK BUKATZEKO ARETXABALETA ABESBATZAK GERTATUTAKO IKUSKIZUNA, 'KATIUSKA' ZARZUELA

'Katiuska' zarzuela, Errusian girotutako istorioa

Aretxabaleta Abesbatzaren 25. urteurrena ospatzeko aukeratu dute *Katiuska* zarzuela

M.A.

Pablo Sorozabalen *Katiuska* zarzuela eskainiko du domekan Aretxabaleta Abesbatzak. Azken hiru urteotan egin du ekitaldia eta aurtengoa berezia da. 25. urteurrena ospatzen dabiltzalako aukeratu dute zarzuela.

Gabonak ezkerro dabilta entseguak egiten abesbatzako kideak Angel Barandiaranen zuzendaritzapean. Aurten, 25. urteurrena ospatzen dabiltzalako ikuskizun berezia eman gura zuten, eta zarzuela aukeratu dute, Pablo Sorozabal donostiarrak konposatutako *Katiuska*. Hala ere, ez dute lehenengo aldiz



ANE IDIGORAS

Aretxabaleta Abesbatza 25. urteurrena ospatzen dabil aurten, eta 30en bat kide elkartuko dira domekan *Katiuska* zarzuela abesteko.

abestuko *Katiuska*; orain dela 9 urte ere egin zuten.

ERRUSIAKO ISTORIA

Ukrainako ostatu baten girotutako istorioa kontatuko dute, Errusiako iraultzaren


ondorioz ukrainarrek alde egin behar duten garaian. Mariatxen Urkia sopranoa *Katiuska* izango da; Mari Karmen Etxeandia, hura ere sopranoa, Olga; Entzi Zubiri tenorra, Sergio prin-

tzea; eta Jose Jabier Etxeberria baritonoa, Pedro polizia. "Ikuskizun apala izango da, baina geure txikitasunean jantziak eta dekoratua asko zaindu ditugu", dio Xeli Etxeandia presidentek.

Hiru akto dituen zarzuela gazteleraz bada ere, elkarriketak euskaraz egingo dituzte. Abeslariet lagun egiten, gainera, akordeoia, pianoa eta perkusioa egongo dira.

Aretz

taberna



Plater konbinatuak

Ogitartekoak

Hanburgesak

Pizzak

Oilaskoak eta

paellak eramateko

GORA SAN MIGELAK ETA ARETXABALETARROK!

ORDUTEGIA:

Astelehenetik ostiralera

9:00etatik zabalik

Astebukaeretan

11:00etatik aurrera

Markole 5, behea Tel.: 943 79 14 67 ARETXABALETA

ERAIKUNTZA ETA INDUSKETAK



San Migel jai zoriontsuak opa dizkizuegu!

Zuzendaria:
Lyonel Arquero

Dekorazioa:
Soraya Arquero

Basabe poligonoa 4, EQ-11 ARETXABALETA
Tel.: 943 79 01 51 608 77 28 67 679 45 57 64
construlan@euskalnet.net

ARTZUBI
ELEKTRAGAILUAK

ARTZUBI ETXETRESNA
ELEKTRIKOAK



Ondo ibili
San Migeletan!



Iparragirre kalea 4 ARETXABALETA Tel.: 943 53 31 86



Altzariak

Diseinua

Apainketa



Zorionak aretxabaletar guztioi!

Mobiliario
ARENAZA

Bizkaia 1 ARETXABALETA Tel.: 943 79 08 07